Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari zara? Zer moduz joan zaizu? Zer da gehien nabarmentzen duzuna, edo baliagarriena? Dagoeneko laugarren mailan nago, Gradu Bukaerako Lana amaitzen. Egia esan, nahiko zoroak izan dira urte hauek. Aktore bezala lan asko egiteko aukera izan dut eta honek esfortzu handia egitea suposatu dit, lana eta ikasketak uztartu ahalizateko. Zentzu honetan, eskertzekoa da irakasleek egin duten ahalegina materiak nire egoerara ego-

kitzeko. Ez didate ezer oparitu eta askotan desastre bat izan da guztia, indarrak beste toki batean jarri nahi izan ditudalako. Bizitza unibertsitarioa ez dut bizi izan. Baina uste dut nire lanak aberastu nauela ikasten ari naizena beste modu batean ulertzeko eta alderantziz.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA aurretik ere ezagutzen nuen, osabak bertan lan egiten zuelako. Txikitatik kooperatiban ikasi izan dut eta, nolabait, jarraipen naturala izan da, filoso-fiari dagokionez.

Noiz eta nola erabaki zenuen aktore izan nahi zenuela? Aktore jaio ala ikasi egiten da? Ez dut egun konkreturik gogoan. Betidanik jolastu izan dut antzerkitxoak egiten. Beti izan naiz ume oso beldurtia eta horri aurre egiteko modua eskaini dit fikzioak. Poliki poliki hasi nintzen eta bat-batean lanbide bihurtu da.

Ez dakit berezko zerbait izan behar duzun aktore izateko! Edozein modutan, garrantzitsua iruditzen zait harritzeko gaitasuna piztuta mantentzea, zure buruaren mugak egunero-egunero proban jartzea eta beti ikasten jarraitzea. Horrez gain, beharrezkoa da diziplina izatea eta gauza asko sakrifikatzeko prest egotea. Modu berean, pozik egotea, ondo pasatzea, seriotasunean jolas egitea... hori ere ezinbestekoa iruditzen zait.

Zein izan da zure eboluzioa aktore bezala? Zein lanetan hartu duzu parte? Herri antzerkian hasi nintzen, Durangoko Karrika Antzerki Taldean. Gero *Goenkale*-rako aurkeztu nintzen eta urtebetez egon nintzen. Ondoren, ikasten jarraitzeko premiasomatu nuen eta Santanderrera joan nintzen antzerki fisikoa ikastera. Bueltan, 2013an Lauka Teatro konpainia sortu genuen laulagunen artean. Orduetik hiru antzezlanetan hartu dut parte: *Arren ganbara* eta *Emeen sotoa* (Atx Teatroa), *Arkimedesen printzipioa* (Maskarada) eta *Zergatik, Jamil!?*; *Por qué, Jamil?* (Tartean Teatroa).

Zinemanpartehartu dut *Le Sanctuaire* (Olivier Masset Depasse, 2015), *Argi* (Iratxe Mediavilla, 2016) eta *The Night Watchman* (M.A. Jimenez, 2016) filmetan. Film laburrak egiten jarraitu nahi dut. Oraintsu, Altzoko haundiari buruzko filmaren grabaketa bukatu berri dut eta neguan beste pelikula bat egongo dut.

“

Aktore bezala lan asko egiteko aukera izan dut eta honek esfortzu handia egitea suposatu dit, lana eta ikasketak uztartu ahal izateko. Eskertzekoa da irakasleek egin duten ahalegina materiak nire egoerara egokitzeko”

“

Beti izan naiz ume oso beldurtia eta horri aurre egiteko modua eskaini dit fikzioak”

“

Antzerkian etxean bezala sentitzen naiz eta zineman, aldiz, kodigoa ikasten ari naiz”

Udazkenean Mireia Gabilondok zuzendu eta Vaiven Producciones-ek ekoitziko duen *Azken Trena Treblinkara / Último tren a Treblinka* antzezlanean egongo naiz eta urte bukaeran beste pelikula bat egongo dut.

Eginiko ibilbide honetan jende asko ezagutu dut eta hori maite dut! Eguketik egunera gauza berriak egiteko gai naizela sentitzen dut. Horixe da eskolarik onena.

Diozun bezala Moriartiren azken filma grabatzen bukatu berri duzue. Zer izan da zailena eta zer ederrena? Gogorrena ordu kopurua, neke fisikoa, egunean 11-12 ordu sartu ditugu grabatzen, astelehenetik larunbatera.



Road movie estiloko zerbait izan da eta kilometro asko egin ditugu. Indarrak mantentzea eta bi hilabete luzetan kontzentratuta eta burbuilatxoan sartuta egotea ez da erraza baina bai beharrezkoa. Ederrena, aldiz, egiten dudana hori maite izatea, eta egunero horretan jardutea. Hori bizipoza da niretzat!

Plazer bat izan da, asko disfrutatu dut, baina ahaztu gabe Joseba Usabiagarekin batera protagonista bezala dudana egin beharrezkoa. Oraindik bide luzea gelditzen da pelikula erakutsi arte. Uste dut datorren urtean zehar ikusiko dugula. Orduan neuruko dugu harrera soziala, medioen jarraipena...

Nola deskribatuko zenuke zure pertsonaia? Nire ibilbideko pertsonaiarik konplexuena da, erraldoi bihurtzeak egunero suposatu duen lan teknikoagatik eta baita pertsonaiaren egoera konplexuagatik ere. Joaquin, Aundiya, mutiko normal bat da pelikula hasieran. Baserria erosi eta umeak izan nahi ditu. Gauzak bere horretan mantentzea gustatzen zaio. Gaixotu eta hazten hasten denean, ordea, dena aldatzen da. Bere min eta ardura horretan, ezin baitio hazteari utzi, zoriontsu izateko borrokan ariko da eta egoerara ohitzeko ahaleginean. Hasieran kostatu zitzaidan pertsonaia aurkitzea, errodojea hasi baino egun gutxi batzuk lehenago ikusi nuen dena argiago eta nahiko ondo joan da guztia. Bere mina eta beldurra ulertzeko egin dut lanik handiena. Ahoskerarekin eta ahotsarekin ere lan asko egin behar izan dut.

Gainera lagun artean aritu zara, ezta? Ikaskideak, Aitor Arregi irakaslea ...

Hala da. Jon Campo eta Aitor Parra ikaskideak produkzioan ibili dira eta Aitor Arregi irakaslea zuzendari eta gidoilarietako bat izan da. Zentzu honetan, Aitor Arregiri eta Moriarti Produkzioak etxeari asko zor diogula iruditzen zait, guri eskaintako aukeragatik eta baita euskal zinemagintzan mugarri bilakatu den *Loreak* filma ekoitziz anagatik. Film laburrak modu pertsonal eta ausartean lantzea, euskaraz ... erreferenteak bilakatu dira.

Antzerkia ala zinea? zer duzu nahiago? Eta telebista? Oso desberdinak dira. Antzerkian etxean bezala sentitzen naiz eta zineman, aldiz, kodigoa ikasten ari naiz, nahiz eta oso eroso sentitu naizen errodojetan. Zinematik hunkitzen nau horrenbeste jende inguruan izateak, gremio ezberdinetakoak. Harrigarria da, makinaria itzela da. Antzerkia txikiagoa da zentzu horretan, intimoagoa. Adrenalina gehiago eragiten dit taulara igotzeak, baina ez dakit, hain desberdinak dira.

Telebista, lan egiteko gutxien gustatzen zaidana da. Gauzak oso bizkor egin behar dira eta egun batetik bestera kalera bota zaitzakete audientziaren arabera. Zuzendariak eta aktoreek ezin dute horren kontra ezer egin, baina oso mekanismo azkarra da egiten ari zaren horretaz ondo konturatzeko!

Nazioarteratzea eta baloreak mahai gainean jarri ditu Aktionen 3. edizioak

LEINNEKO HAINBAT IKASLEK, ARIZMENDIARRIETAREN LAGUNAK ELKARTEAREN LAGUNTZAREKIN, AKTION EKITALDIAREN HIRUGARREN EDIZIOA ANTOLATU DUTE IKASTURTE HONETAN. APIRILA BUKAERAN OSPATU ZEN GARAIA BERRIKUNTZA GUNEAN, ARRASATEN, ETA HONAKO GAIA LANDU ZUTEN: 'NAZIOARTEKOTZEA ETA BALOREAK. KULTURARTEKOTASUNERA EGOKITUZ'.



Enpresagintza Fakultatea | Aktion-en helburua da enpresak eta gizartea hobetzeko erronkak aztertu eta proposamenak mahai gainera ateratzea. Eta Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartea ere ekimen honen bidelaguna da. Iaz ekintzailetasunaz eta kooperatibismoaz jardun zuten eta esperientzia interesgarri asko ezagutzeko parada izan zen.

Aurten, enpresen nazioarteratzeak eta kulturantzak oinarritzko balioei nola eragiten dien aztertu dute. Helburu horrekin apirila bukaeran Garaian elkartu eta hainbat enpresa eta erakundeetako ordezkariak gonbidatu zituzten: Jokin Laspiur

(MONDRAGON), Tomas Gonzalez (IDOM), Naiara Arnaez (MONDRAGON UNIBERTSITATEA), Jon Basurko (Fagor Ederlan), Joanes Roso (TZBZ) eta Yolanda Muñoz (Patricio Etxebarria). Bertarutakoek hizpide izan zituzten kanpoko negozioetara lanera bidalitako pertsonalaren kudeaketa, Korpora-

Kanpora bidalitako langileen motibazioa eta autonomia aldarrikatu zuten hainbat hizlarik

zioaren eta joandako herrialdearen arteko kulturen bizikidetzak, eta enpresa batek nazioarteratzeko unean bizi duen prozesua.

Basurkok garrantzia handia eman zion kanpora bidalitako pertsonak motibatzeari: "Hori bermatuta, gaitasunak garatu ahal izango dituzte". Ildo beretik Yolanda Muñozek kanpoan dagoen langileak autonomia izan behar duela aldarrikatu zuen. Eta Joanes Rosok, berriz, berebiziko garrantzia eman zion hemen ditugun balioei kanpoan ere eusteari. Testigantzak jaso ostean, ikasle, enpresari zein elkarrekin kideak taldeetan batu eta gaia gehiago sakondu zuten.

Reunión de Consorcio del Proyecto Europeo MANTIS en Portugal

LOS 47 SOCIOS QUE FORMAN PARTE DEL CONSORCIO DEL PROYECTO EUROPEO MANTIS SE JUNTARON EN LAS INSTALACIONES DE UNINOVA EN LISBOA PORTUGAL LOS DÍAS 22, 23 Y 24 DE FEBRERO.



Escuela Politécnica Superior | Al inicio, el coordinador del proyecto Urko Zurutuza ofreció una formación a los líderes de tareas y de paquetes de trabajo, definiendo los roles, responsabilidades, y métodos de trabajo colaborativo.

Se organizaron talleres prácticos sobre las áreas desde las que se aborda el modelo de referencia para el desarrollo de una plataforma colaborativa de servicios orientados al mantenimiento: requisitos de los 11 demostradores, funcionalidades de la plataforma, modo de desarrollar y comunicar sensores que recojan información de los componentes a monitorizar, inteligencia que provea un análisis de la causa del fallo, inteligencia que permita derivar el tiempo de vida útil de los componentes, inteligencia que prediga futuros fallos, inteligencia que optimice el mantenimiento, modelos de visualización de la información, forma, contexto, y modo de presentar la información a operarios de mantenimiento, y modelos de negocio que se pueden derivar del mantenimiento proactivo.



Desarrollo de metodología de diseño de experiencias inclusiva

Tesia | El objetivo de la tesis de Aiur Retegi es desarrollar y validar una metodología de diseño de experiencias inclusiva para desarrollar proyectos orientados a mercado por estudiantes o diseñadores industriales sin conocimientos específicos previos en diseño de experiencias. Se analizan distintos enfoques metodológicos y métodos y herramientas para incorporar a la metodología tanto en Diseño de Experiencias como en Design for All. A partir de las conclusiones del enmarque científico-tecnológico se desarrolla la metodología Inclusive Experience Design.

Hezkuntzaren berrikuntzari buruzko jardunaldi arrakastatsua

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Maiatzaren 13an 'Berrikuntza' jardunaldiaren 3. edizioa egin zuen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. 'Hezkuntza testuinguru eraldatzaileak: bizipenak eta erronkak' lelopean, hezkuntza arloko 80 profesionalak aukera izan zuten esperientziak partekatzeko eta adituen hitzak partekatzeko.

Eskoriatzako campusean hurbildutako parte-hartzaileak bi taldetan banatu ziren: alde batetik, interes berezia zutenak Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan; eta, beste aldetik, elkartu ziren Lanbide Heziketan eta unibertsitatean ematen ari diren esperientziak bertatik bertara ezagutu nahi zituztenak. Geroago, taldeak berriro batu eta talde txikietan landutako gaiak partekatu zituzten. Jardunaldia bukatzeko Angel I. Pérez Malagako Unibertsitateko ikertzaileak hitzaldia eman zuen. Hizlariak gainbegiratu zituen hezkuntza bizitzen ari den aldaketak nagusiak.



Comportamiento vibratorio de un FML de termoplástico

Tesis | Jaione Iriondo ha lleyado a cabo un estudio, de forma experimental y numérica, del comportamiento vibratorio de un laminado fibra-metal (FML) de termoplástico auto-reforzado. Se ha realizado la caracterización del termoplástico auto-reforzado considerando su ortotropía y la dependencia con la frecuencia. A continuación, se ha realizado la caracterización del FML formado por dicho compuesto, donde los resultados se han comparado con los de un FML tradicional y otro del aluminio. Por último, se ha realizado la simulación numérica de su comportamiento vibratorio del FML.



Soluciones alimenticias para transformar el mundo

LA CORPORACIÓN MONDRAGON, A TRAVÉS DE MONDRAGON HEALTH, LLEVÓ A CABO UNA JORNADA PARA ANALIZAR LAS SOLUCIONES ALIMENTICIAS QUE AYUDEN A TRANSFORMAR EL MUNDO Y A CONVERTIRLO EN UN PLANETA MÁS SOSTENIBLE, SALUDABLE Y SOLIDARIO.



Basque Culinary Center - Facultad de Ciencias Gastronómicas

| La jornada, enmarcada en el Día Mundial de la Salud, corrió a cargo del experto internacional Dr. Alejandro Jadad, referente mundial en la generación de soluciones para que la humanidad logre los niveles máximos de salud y bienestar en un planeta más sostenible.

El objetivo de la jornada ha sido reflexionar sobre la creación de empresas o proyectos que permitan construir un mundo más sostenible y saludable, mediante soluciones que reinventen la alimentación, sus sistemas de producción, distribución y servicios. 36 expertos y líderes de opinión de la empresa, mundo social y universitario han reflexionado sobre ello. La primera jornada se celebró en Basque Culinary Center y el trabajo en común tuvo lugar en Orona Ideo. El encuentro quiso reflejar el compromiso que la Corporación MONDRAGON tiene por la salud y el bienestar de las personas, trabajando en base a sus valores de cooperación, participación, responsabilidad social e innovación.

MC-SUITE: ICT Powered Machining Software Suite

Escuela Politécnica Superior | El área de Sistemas Distribuidos de Tiempo Real, Telemática y Mecanizado de Alto Rendimiento de la Escuela Politécnica Superior participa en el proyecto MC-SUITE (ICT Powered Machining Software Suite), cuyo objetivo es contribuir mediante tecnologías innovadoras a las empresas manufactureras del futuro para que compitan de forma eficiente en un mercado global. Bajo la tendencia de Industry 4.0, los sistemas ciberfísicos (CPS) con el apoyo de las tecnologías en la nube (Cloud) permitirán que las máquinas reales operen en la nube y simulen procesos integrando el conocimiento obtenido de los algoritmos analíticos basados en datos y el conocimiento físico disponible.

En este proyecto, financiado por la Unión Europea, participan varias empresas y centros de relevancia, tales como IDEKO S.COOP (líder), Cedrat Technologies, Tagueri Aktien-gesellschaft, Gamax y la Universidad de Nottingham. Son 12 partners de 7 países.

Las tareas realizadas por la Escuela Politécnica Superior van desde la virtualización del proceso, la analítica de datos y optimización de los procesos, así como el propio desarrollo SW de la plataforma MC-SUITE.

A finales de abril tuvo lugar la reunión de seguimiento del sexto mes del proyecto. Se informó sobre el estado del proyecto, se actualizaron actividades y se hizo un plan de tareas para cada participante.



“Errespetua eta talde-lana oinarrizkoak dira kirolean”



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatea | Maider Garmendia Imaz Zaldibian jaiotako gasteiztarra da. Txikitatik gustatu izan zaio ariketa fisikoa eta kirola. Aisialdi begirale eta eskolaz kanpoko ekintzetan begirale moduan ibili izan da. Eta, gauegun, Mondragon Unibertsitatean egindako Heziketa fisikoko hezitzaile eta kulturartekotasuna kurtsoren ondoren, 3. mailako tutorea eta lehen hezkuntzako heziketa fisikoko irakaslea da.

Aurretik zer ikasi duzu? Gasteizen ikasi nuen, Kirol Magisteritza. Lehenengo promozioa naiz eta horri esker ikasketak bukatu bezain laster lanean hasi nintzen. 1997 geroztik kirol hezitzailea naiz. Gainera, aisialdi begirale eta uretako sorosle ziurtagiriak ditut.

Kirol hezitzaile, zergatik aukeratu duzu espezialitate hau? Argi nuen kirol mundua, umeak, euskara... zirela nire izaerarekin bat zetozen ezaugarriak. Hala, ikasketak aukeratzeko garaia heldu zenean, Kirol Magisteritza aukeratu nuen, gero egindako masterrarekin gehiago sakonduz.

Zer motatako dinamika jarraitu duzue ikasketeko? Praktikoak, teorikoak? Gehienbat teori-

koa. Bi aditu izan ditugu irakasle, baina guk ere nolabaiteko esperientzia dugunez, ekarpenak egin ahal izan ditugu. Kasu batzuetan, mahai-inguru motz baina interesgarriren bat ere sortu da.

Zer ikasi duzu? Zerk piztu du zure interesa? Mondragon Unibertsitateari esker, ‘betaurreko’ berri batzuk izatea lortu dut. Bi adituek behin eta berriz adierazi duten bezala, ‘betaurreko’ hauekin argi ikusten dira hainbat gauza. Besteak beste, ikaslea dela helburua, bere familia eta kultura alde batera utziz.

Kirolak duen balioa sustatu nahi du ikasketak honek? Nola gauzatzen da hori, nola jarri balioan? Argi dago jolas motoreak, kirol ezberdinak ‘unibertsalak’ direla eta hitz gutxirekin berehala ulertzen direla. Baina arlo honetan baloreak ezinbestekoak dira, eta errendimenduari garrantzia eman

beharrean, ezin dugu ahaztu esfortzua, errespetua, talde-lana... iparra direla.

Etorkizunean non ikusten duzu zure burua? Non gustatuko litzaizuke hemen ikasitakoa praktikan jaritzea? Neure burua gaur egun nagoen ikastetxean ikusten dut, programazio egoki bat eginez, eta ikasleei hausnarketa sakon bat egiten erakutsiz eta animatuz.

“Betaurreko” berri batzuk izatea lortu dut Mondragon Unibertsitateari esker, ikaslea dela helburua argi ikusteko betaurrekoak



Hortz inplanteen gainazalaren topografiaren alterazioa

Tesia | Alaitz Zabala tesia helburua intsektio kirurgikoan sorturiko hortz inplanteen gainazalaren topografiaren alterazioa aztertu eta aurreikusteko teknikak garatzea izan da. Hala, hortz inplanteak karakterizatzeko estrategia eta datuak prozesatzeko protokoloak garatu dira. 3Dko parametro topografikoaren produktu berri baten bitartez, modifikazioaren eta propietate topografikoaren arteko korrelazioa arrakastarekin ezarri da. Si izena eman zaio parametroari. Gainazalaren alterazioak jasateko duen joera aurreikusi eta inplante funtzionalagoen diseinuan aurrerapenak sustatzeko erreminta egokia da.



Litio-oi bateriaren kargaren egoera

Tesia | Litio-oi bate-

riaren kargaren egoera (SOC) eta osasunaren egoera (SOH) oinarrizko parametroak dira, erabilgarri dagoen energia eta energia zein potentzia emateko ahalmena adierazten dutelako. Modelo Kalmanen iragazki hedatu batean inplementatu da, SOCaren estimazioa egiteko. Gustavo Perezek proposatutako algoritmoaren abantaila nagusia da uneoro coulomb counting-eko etantsioaren kalkuluzehatzak aldi berean iragazkiaren parte gisa erabil daitezkeela. Hala, kalkulua egonkor eta zehatza lortzen da. Proposatutako integrazio prozedura funtsezkoa da, ereduaren inplementazioa ahalbidetzen duelako sinplifikaziorik egin gabe.

Sergio Mariscal, ganador del certamen Reto Azpilicueta



Basque Culinary Center - Facultad de Ciencias Gastronómicas | El alumno de Basque Culinary Center Sergio Mariscal ha sido el ganador de la IV edición del Reto Azpilicueta, iniciativa para promover la formación enológica y gastronómica, con el plato ‘Crianza de trufa, patata, edulis, foie y yema’. Mariscal también ha ganado el Premio Extraordinario del Público y ha recibido la Beca Azpilicueta con un importe de 4.360 euros a descontar de su matrícula para el curso 2016-2017.

El Reto Azpilicueta consiste en elaborar una creación gastronómica que maride con una de las cinco principales referencias de la marca: Azpilicueta Blanco, Azpilicueta Rosado, Azpilicueta Crianza, Azpilicueta Origen y Azpilicueta Reserva. En una cena para 50 comensales, un jurado experto en cocina, enología y sumillería ha elegido un único plato ganador que será receptor de la ‘Beca Azpilicueta’. Además, este año se ha incorporado como novedad un ‘Premio del Público’ un plato ganador.

Mejorar la salud a través del diseño

EL 27 DE MAYO SE CELEBRÓ LA VI EDICIÓN DE LAS DESIGN KONFERENTZIAK EN EL MUSEO SAN TELMO DE DONOSTIA. BAJO EL LEMA 'DISEÑO Y SALUD: MEJORANDO LA SALUD A TRAVÉS DEL DISEÑO', EL OBJETIVO DE LA JORNADA FUE RESALTAR EL VALOR QUE PUEDE APORTAR EL DISEÑO AL SECTOR DE LA SALUD.



Escuela Politécnica Superior | La jornada comenzó con el apoyo de la diputada de Promoción Económica Ainhoa Aizpuru y con la presentación de dos casos de éxito. Borja Lizari de la empresa KIRO Robotics presentó el robot para la preparación de medicinas de oncología ganador de un premio iF, y Jerónimo Carrera de la empresa UNYQ dio a conocer los nuevos covers para prótesis de aspecto de accesorio de moda fabricados mediante impresión 3D.

Tras la mesa redonda y el café, la experiencia del paciente y el diseño de servicios fueron los temas más mencionados. Jackie Marshall, del gobierno del Reino Unido, alertó sobre los problemas de salud de los que generalmente no se habla y animó a abordarlos ya que son los que más oportunidades ofrecen. Irene Tato del IEXP, Instituto de Experiencia del Paciente, promovió empoderar a los pacientes e involucrarlos en proyectos participativos para diseñar los servicios de salud. Arantxa González de Heredia del Diseinu Berrikuntza Zentrua de MONDRAGON UNIBERTSITATEA y Erkuden Aldaz de Matia presentaron el proyecto SIM-ACP de un Juego Serio para ayudar a las auxiliares de los centros gerontológicos.

Por último, el rector de MONDRAGON UNIBERTSITATEA Vicente Atxa cerró la sesión subrayando el valor del binomio Diseño y Salud por su capacidad de adaptar la tecnología a las necesidades reales de la sociedad.

Unibertsitatea eta Arizmendi ikastolaren arteko elkarlana

ARIZMENDI IKASTOLAK ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEAK ELKARLANEAN LANDUKO DUTE 'IPARRA: ARIZMENDI 2020' EGITASMOA. HIRU URTE IRAUNGO DUEN ELKARLARNAREN HELBURUA DA SUSTATZEA ARIZMENDI IKASTOLAN ERALDAKETA SOZIALA ERAGINGO DUEN HEZKUNTZA KOOPERATIBOA.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Arizmendi Ikastolarekin batera abian jarritako proiektuan, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ikertzaileek sakon aztertuko dute etorkizuneko hezkuntza kooperatiboa eredu, beti ere oinarri hartuta Debagoieneko ikastola horretan abian jarri duten egitasmo pedagogiko berritzailea. Elkarlanak bi fase nagusi ditu. Lehenengoan, ikertzaileek egingo dute egoeraren diagnostia. Bigarren urratsean, ostera, diseinatu eta inplementatu egingo dituzte programa pilotuak eta landuko dituzte komunikazioa eta proiektuaren hedapena.

Proiektuarekin lortu nahi da Arizmendi ikastola biziberritzea eta erakundearen ardatzean kokatzea subjektu kooperatiboak izango diren ikasle, guraso eta langileak; alegia, prestatzea pertsonak gai izango direnak eraldaketa sozialean eragiteko eta balioztat izango dituztenak berrikuntza, kooperazioa eta elkarlana. Hori guztia, erakunde berritzaile batean, komunitateari irekia eta parte-hartze zuzena bul-tzatuko duena.



On-line stator winding temperature estimation for thermal protection of induction machines in railway traction applications



Tesia | Urtzi Lazkanok landutako tesi honetan, sentsorerik gabeko tenperatura estimadore bat diseinatu da, tren traxioko sistemen indukzio makinaren babes termiko bezala. Alde batetik, modelo termiko gene-

riko murriztu bat diseinatu da, zein makina mota ezberdinetan balioztatu den. Orden osoko modelo termikoen erredukzio prozesu bat diseinatu da. Bestalde, modelo termikoek dituzten desabantailak direla

eta, seinale injekzioan oinarritutako estimadore termiko bat garatu da. DC tentsio bat par kontrolean gehituz, makinaren estatoreko erresistentzia kalkulatu da, harilketako tenperatura lortuz. Modelo termi-

koan eta seinale injekzioan oinarritutako babes sistema oso bat garatu da. Diseinutako algoritmo guztiak simulazioz eta tren traxioko prototipo baten laborategian balioztatu dira.

Kirol Zerbitzuak 25 urte bete ditu aurten

2015/16 IKASTURTEAN, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO KIROL ZERBITZUAK 25 URTE BETE DITU. IKASTURTE HONETAN, INOIZ BAINO IKASTARO GEHIAGO ANTOLATU DIRA ETA GURE IBILIBIDEAN IZANDAKO PARTE-HARTZE DATURIK HOBERENAK LORTU DIRA.



“Ikasleen % 30ek gure ekintzaren batetan parte hartu dute, CSDk egindako ikerketan, Estatuko unibertsitateen batzbestekoa %14 den bitartean”

Kirola | Behin 25 urte igarota, MONDRAGON UNIBERTSITATEko Kirol Zerbitzuak jarri zuen helburu nagusia, unibertsitateko ikasle eta langileen artean bizimodu osasuntsua sustatzearena, betetzen doa.

Kirol Zerbitzua, Estatu eta autonomia mailako hainbat lege ezberdinek arautzen duten zerbitzua da. Hala nola, Ley vasca del deporte, plan vasco del deporte edo LOU legeak. Araudi hauetan, unibertsitate guztietan Kirol Zerbitzu bat izatearen beharra aipatzen da, izan ere, ikasketa garaian burututako jarduera fisiko eta kirol praktikak, ikaste prozesuan onura positiboak eragiten dituela egiaztatuta dago hainbat ikerketa ezberdinetan. Hau honela, Kirol Zerbitzuak 25 urte hauetan, unibertsitateko ikasle hezkuntza integralean lagundu du, ikasleriaren beharretara egokitutako programa eskainiz.

90/91 ikasturtean sortu ziren gaur egunean ezagutzen dugun Kirol Zerbitzuaren lehen haziak. Garai hartan, Goi Eskola Politeknikoko fakultatean hasi zen Kirol Departamentua eta Heziketa Fisikoko klaseak ematen ziren.

1997. urtean sortu zen MONDRAGON UNIBERTSITATEA aurretik existitzen ziren hiru kooperatiba elkartuz. Elkartze prozesu horren ostean Kirol Zerbitzua ere beste fakultateetara hedatu zen.

Horrela, Enpresagintza fakultatean, 98/99 ikasturtean Kirol Zerbitzua hasi eta kreditu askeko irakasgaia ere eskaini zen. Hurrengo ikasturtean

(99/00), Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatera ere zabaldu zen, Kirol Zerbitzuak hiru fakultateetan presentzia izanez. Guztia koordinatzeko, fakultateei zerbitzua eskaintzeaz gain, Kirol Zerbitzu orokorraren kudeaketa ere hasi zen.

Unibertsitateak bizi dituen aldaketei erantzunez, Donostialdean zabaldu diren campus berrietara ko gure eskaintza zabaltzen eta moldatzen ari gara.

Ibilbide honetan helburuak pixkanaka lortzen goazela esan genezake, ikasle artean bizimodu osasuntsua sustatuz. 2015/16 ikasturtean sekula antolatu diren ikastaro eta ekintza kopuru handiena izan dugu eta hori erabiltzaile eta erabileran ere nabarmen nabaritu dugu.

Aurten, 1.428 erabiltzaile ezberdin izan ditugu MONDRAGON UNIBERTSITATEan. Erabiltzaile guzti hauek 2.750 izen emate egin dituzte antolatuko ekintzetan eta guztira 100 jarduera baino gehiago eskaini dira ikasturtean zehar; 37 irteera eta ikastaro, 35 txapelketa, 17 ikuskizun, beste 7 lehiaketa, ekintza bereziak eta bakoitzak bere kabuz jarduera egiteko aukera ere zabaldu dugu, adibidez, Donostiako hiru gimnasioekin hitzarmen berriak eginez.

Datu hauekin, gure ikasle % 30 inguruk gure ekintzaren batetan parte hartu duela baieztatu dezakegu, Estatu mailan CSDk (Consejo Superior de Deportes) egindako ikerketan, Estatuko unibertsitateen batzbestekoa %14 den bitartean.

Eskerrik asko 25 urte hauetan lagun izandako erabiltzaile eta laguntzaile guztiei!

Ikasle ohien hirugarren topaketa

Topaketa | Apirilaren 23an, ikasle ohien topaketa egin zen Eskoriatzako campusean. MUKide ikasle ohien elkarteak antolatutako ekitaldi horretara hurbildu ziren Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean ikasitako 26 ikasle ohi. Bilkurara deituta zeuden duela 10 urte ikasketak bukatutako ikasle ohiak; aurtengora, gainera, gonbidatuta zeuden 2000-2001, 2001-2002 eta 2002-2003 ikasturteetako ikasle izandakoak.

Ekitaldiari 11:00etan eman zitzaion hasiera, Begoña Pedrosa Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanorekin ongi etorriarekin. Ondoren, parte-hartzaileek aukera izan zuten ikaskide ohien ibilbide pertsonal eta profesionalen berri jasotzeko. Behin euren arteko harremana berrartuta, ikasle ohiak bisitatu zituzten Humanitate eta Hezkuntza Zientzia Fakultateak Eskoriatzan eta Aretxabaletan dituen campusak. Amaitzeko, luntx bat egin zuten Eskoriatzako campusean. Aurtengoa izan da ikasle ohien topaketaren hirugarren edizioa.



Casos de éxito de LEINNers

Facultad de Empresariales | Enrique Cat es uno de los pioneros del grado LEINN con Teamlabs en Madrid, y está ya a punto de graduarse. Este año ha conseguido levantar a través de la Bolsa Social 200.000 euros de capital para su empresa Nostoc Biotech, una compañía de bioagricultura que aspira a ser un referente en el mercado de los biofertilizantes, y, además, acaba de ser seleccionado para formar parte del programa de aceleración CRECE, organizado por Fundación UnLtd Spain y Edmond de Rothschild Foundations, y que está destinado a empresas de emprendimiento social. Cat opina que para vivir LEINN con la intensidad que se requiere hace falta tener mucha ambición: “Un buen LEINNeer es un LEINNeer que se quiere comer el mundo”.

“It impressed me that we are free to discuss with professors anything”



MONDRAGON UNIBERTSITATEA | Ritanjali Sathy is an indian student doing the Master thesis about Improvement of titanium forging for biomedical applications using advanced finite element models in Faculty of Engineering of MONDRAGON UNIBERTSITATEA.

How did you decide to come here to do your thesis? Applying for funding for my Ph.D. through the Erasmus Mundus project Interweave, the topic related to my Master's thesis closely matched with the thesis opening in Mondragon University. I consulted with my University Prof. and recommended me this University saying it has good faculty members.

Did something impress you at first? When I saw Professors working with us as friends and they will never show us they are our professor. On my first day my supervisor was busy in another meeting. So, I discussed with the other PhD students and till 1 month I did not realize that the other PhD student I was thinking were actually my co-supervisors. Also I was really surprised because you can call your professor with their first name not as Sir or Professor.

What are the main points of Mondragon University? And the weak ones?

The work life. Here the professors and colleagues are very friendly and helpful. As you see them as your friend you also feel free to discuss about any work problems and this was the first thing I liked most. The events organized by the University are also good. I don't know any weak ones.

Have you brought any hobby from India? Or have you discover anyone here? In India I used to dance in cultural events of my universities. In Mondragon too I have joined for the dance class for the traditional Basque Dance.

Is it hard to live as long in a different culture? Not the culture, it's the weather that is hard to live with. In the beginning I was always ill due to cold and rain. Now I am very much comfortable here to live and with the culture here.

Are you trying some basque language? I am living in Basque Country and here all people give respect and speaking basque language and it will my great pleasure if I could learn it. We speak Oriya in my province and a different national language. And I know some basque words, specially the most beautiful “Ama” and “Aita”, and also: “Kaixo”, “Egun on”, “Gabon”, as well as “Pintxo” and “Euskal Herria maite dut”.

“Bizikleta gainean ikasitakoak ezin dira beste inon ikasi”

ANGEL GALLOK GALARRETAN IRAKASLE DIHARDU. AUKERA DUEN GUZTIETAN MUNDUAN BARRENA IBILTZEN DA BIZIKLETAREN GAINEAN ETA, TARTEKA, IDAZTEARI EKITEN DIO. DAGOENEKO HIRU LIBURU ARGITARATU DITU.

Goi Eskola Politeknikoa |

Zer ibilbide izan duzu hona etorri aurretik? Bilbon Ingeniaritza Industriala ikasi, Ingalaterran bi urte lan egin eta handik bueltan Arrasaten hasi nintzen lanean. Orain Galarretan nabil, Ekoteknologia eta Energiako graduetako ikasleekin.

Noiz hasizinen idazten? Txikitan, komikiak egitea, maite nuen, baina denbora luzea behar nuen istorioa bukatzeko. Horregatik hasi nintzen idazten, esperimentu gisa liburu bat idaztea erabaki nuen arte.

‘Bambu’ eta ‘Samba’ zure kabuz argitaratu zenituen... Bai, gazteendako eleberriak dira biak. Argitaratu nituen proba egiteko eta feed-back-a jasotzeko. Izatez, badut beste liburu bat erdi amaituta, baina zuzenketak egitea oso zaila egiten zait: denboraren neurketa, estiloa, deskribapen gehiegi ote dauden... Beste atal hau ez dut atsegin!

Azken argitalpena desberdina da, eta ez da fikzioa... Aurreko biak bezala hau ere Hegoamerikan kokatuta egon arren, ‘Un montón de momentos con Jaime y muchos más a su alrededor’ zeharo desberdina da, eta ez soilik lehen aldiz gaztelaniaz idazten dudalako. Istorioa eszedentzia garaian egindako bidaian sortu zen. Bi helburu nituen orduan:

oporak disfrutatzea eta premia zutenei zerbaitetan laguntzea. Hegoamerikatik barrena hainbat aukera suertatu zitzaizkidan baina ez ninduten asetu. Eta, halako batean, Peru-ko Huanchaco herriko eskola ezagutu nuen, hango jendea, Jaime izeneko mutiko bat eta ‘El Niño’-ren ondorioz sustraiak galtzeko zorian dagoen herri bat. Istorio batekin topo egin nuen eta istorioa liburuan jarzteak merezi zezakeela pentsatu nuen.

Hau ere autoekoiztuta eta etekinak helburu jakin baterako bideratuta...

Bai. Jaime, ‘protagonista nagusia’, gaixo dago eta premia asko ditu. Gaztelaniaz idatzi nuen berak uler dezan, ilusioa egingo dio-eta. Liburuaren etekinak Jaime eta ingurukoentzat dira; baina liburuak ez du tristeza izan nahi, bestelakoak ere kontatzen ditu.

Bizikletan bidaiatzeak bizipenak izateko aukera? Beti izan naiz kirol zalea, eta batez ere bizikleta dut gustuko. Hemen mendian ibiltzen banaiz ere, sarri kanpora jotzen dut bakarrik edo lagunekin. Hegoamerikan barrena egindako bidaietaz gain, azken txangoan Pakistan, Txina, Kirjistan eta Tayikistan bisitatu nituen. Bestetan India, Islandia, Cachemira, Marruecos... Bizikletakoso abiadura egokia ematen dizu, gertutasun bat; autoan, berriz, asko galtzen duzu. Jendea, gehienbat.



Sormena taula gainean jartzeko gonbitea

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAREN BAITAN KOKATZEN DA SORGUNEAK IKERTEGIA.



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Aurten, esperimentazio berri bat jarri dute martxan, eta ikasleekin batera sormen ahalmena garatzeko ariketak eta esperientziak planteatzen dituen proiektua sortu da. Publiko aurrean aurkezten dira, egun konkretuetan: euskararen egunean, kurtso bukaerako jaialdian Txomin-txapel izeneko ospakizunean,...

Prozedimendu aldetik, ikasleei gonbitea luzatzen zaie parte hartzeko, eta taldea osatuta, beraien sormen ahalmena bistaratzeko prozesuan murgiltzen dira, ikasle bakoitzak eman ahal duena oinarri hartuta. Beti ere, koherentzia batean, gidoia testuinguru zehatz baten barruan garatzen da.

“Ikasleentzat oso lan interesgarria eta aberatsa da” aipatzen du Iñaki Urruzola Sorguneak Ikertegiko kideak. Horrez gain, “ikasleek esperimentatzeko duten gogoia eta beraien inspirazioa hartzen dira kontuan; biak uztartzen dituen proiektua da; euskararen presentzia oinarrian jarriaz eta ikasleek lidergoa hartzea xede izanik”, gaineratu du.

Tobera, sormena esperimentu Debagoienean, ekimen kultural gisa sortu zen Tobera orain dela bost urte

eta dagoeneko herriz herri antolatuta dira antzerki ekimen satirikoak. “Tobera tradizio bihurtu da, herriz herri modu pertsonalizatuan sortzen den eta moldatzen den antzerkia da, bertakoak bertokoentzako eginikoa” dio Urruzolak.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera ere heldu da Tobera eta ekarpen oso interesgarriak egin dituzte ikasleek. “Benetan interesgarria da ikustea nola ikasleei ahotsa emanez gero, zein ondo erantzuten duten, ze bizkor ulertzen duten jokoak” gaineratu du.

Sormena Euskal Herrian

Euskal Herrian sormenaren inguruko iritzi kontrajarriak daude gaur egun. Batzuk eboluzioa positibotzat jotzen dute eta ikaragarri aurreratu dela aipatzen duten bitartean, beste batzuk konplazentzian jausi garela diote. Urruzolaren ustetan, “sormena inoiz baino gehiago plazaratzen da gaur egun. Baina horrek ez du esan nahi egiten den guztia kalitatezkoa denik, edo gizartean oihartzuna duenik. Izan ere, askotan, hizkuntzak berak dituen muga arabera kokatzen da oihartzuna, eta egiten diren proiektuak sarritan komunitate txikitik ateratzen dira”.

Unibertsitateko jaiak



GRADOS

www.mondragon.edu/estudios/grados/

MÁSTERES UNIVERSITARIOS

www.mondragon.edu/estudios/masteres-universitarios

FORMACION PARA PROFESIONALES

www.mondragon.edu/cursos/les

OTROS

Iraila

KURTSO HASIERA

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA Gradukoak

1. eta 4. kurtsoak: irailak 6
2., 3. kurtsoak: irailak 12

Masterrak

Kurtso guztiak: irailak 12

BASQUE CULINARY CENTER

1. kurtsoa: irailak 5
2. kurtsoa: irailak 6
3. eta 4. kurtsoak: irailak 7

MOOC: HACKING ÉTICO

Online. 5 septiembre

CURSO AVANZADO EN HIDRAULICA INDUSTRIAL

27 septiembre

COACHING DE PERSONAS Y EQUIPOS MÓDULO II

Enpresagintza Fakultatea

Urria

HABILITACIÓN DOCENTE PARA EL EJERCICIO DE LAS PROFESIONES DE PROFESOR DE EDUCACIÓN SECUNDARIA OBLIGATORIA, BACHILLERATO, FORMACIÓN PROFESIONAL Y ENSEÑANZA DE IDIOMAS
3 de Octubre

DESARROLLO Y GESTIÓN DE PROYECTOS DE INNOVACIÓN DIDÁCTICO-METODOLÓGICA EN INSTITUCIONES EDUCATIVAS (BERRIMET)
3 de Octubre

EDUCACIÓN EN CONTEXTOS MULTICULTURALES Y PLURILINGÜES (EKOMU)
3 de Octubre

AVANZADO EN GESTIÓN DE PROYECTOS
3 de Octubre

GESTIÓN INTEGRAL DE UN PROYECTO Y LANZAMIENTO DE NUEVOS PRODUCTOS
3 de Octubre

MÁSTER EN INNOVACIÓN EMPRESARIAL Y DIRECCIÓN DE PROYECTOS MIP-ONLINE
6 de Octubre

MÁSTER EN DIRECCIÓN DE OPERACIONES LOGÍSTICAS (SUPPLY CHAIN MANAGEMENT)-FULL TIME
10 de Octubre

KOOPERATIBAGINTZA ADITU TITULUA
Urriaren 14a

KIROL-HEZITZAILEA ADITU TITULUA
Urriaren 20a

PROGRAMA PARA LA CERTIFICACIÓN PMP
21 de Octubre

EXPERTO EN SEGURIDAD INFORMÁTICA (ONLINE) XI EDICIÓN.
24 de Octubre

MASTER EN SEGURIDAD INFORMÁTICA (ONLINE)
24 de Octubre

MBA-MÁSTER UNIVERSITARIO EN DIRECCIÓN DE EMPRESAS
Enpresagintza Fakultatea

ECONOMÍA SOCIAL Y EMPRESA COOPERATIVA - ONLINE
Enpresagintza Fakultatea

MARKETING DIGITAL
Enpresagintza Fakultatea

DIRECCIÓN CONTABLE Y FINANCIERA
Enpresagintza Fakultatea

INTERNACIONALIZACIÓN DE ORGANIZACIONES
Enpresagintza Fakultatea

Azaroa

GESTIÓN AVANZADA DE PROYECTOS
21 de Noviembre

INTERVIEWING AND CV WRITING IN ENGLISH

Requirements:
recommended minimum level B2

Bring a copy of your CV to the course.

DURACIÓN:
Una sesión de trabajo

A partir de
la 1ª semana de julio

Unibertsitatean graduatzeko zorian zaude edo lanbide-karrera aldatu nahi duzu?

Atzerrian lan baterako aurkeztu nahi duzu zeure burua?

Zure CVak dauzkazun indarguneak saltzen ditu?


Ba al dakizu laneko elkarrizketa batean konbentzigarri izaten?

¿Estás a punto de graduarte en la universidad o de cambiar tu vida profesional?

¿Estás valorando la opción de trabajar en el extranjero?

¿Tu CV vende tus puntos fuertes?

¿Sabes cómo ser convincente en una entrevista de trabajo?



mondragonLingua

Zure MondragonLingua zentroetan informazioa eskatu.

BILBO
Buenos Aires, 7.
Tel. 94 661 34 67

VITORIA-GASTEIZ
Florida, 8A.
Tel. 945 15 01 55

ARRASATE
Araba etorb, 4.
Tel. 943 71 20 55

DONOSTIA
Sánchez Toca, 11.
Tel. 943 43 31 02

OÑATI
Motxon, 7.
Tel. 943 71 60 00

Pide información en tu centro MondragonLingua.

Udako ikastaro trinkoak



Cursos Intensivos de Verano